

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## ETAk eragindako indarkeria-kasuak zabaltzea eta udalerrietako beldurrarekin amaitzea dira **Barcina Lehendakariak hartu dituen konpromisoak egoera berriaren aurrean**

*Yolanda Barcinak gaur eta bihar Madrilén egingo den 'EAEren eta Nafarroaren etorkizuna. Terrorismoaren biktimen kontaketa' mintegiaren hasierako hitzaldia eman du*

Miércoles, 21 de marzo de 2012

ETAk eta haren jarraitzaileek Nafarroako herritarrei eragindako indarkeria- eta bortxa-kasu guztiak batu eta zabaltzea. Eta terroristek lapurtutako askatasuneko espazioak errekuperatzea eta hainbat udalerritan ezarri den beldurraren egoerarekin amaitzea.

Horiek izan dira Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakari Yolanda Barcina Angulok terrorismoaren amaierari lotuta jendaurrean hartu dituen bi konpromisoak, 'EAEren eta Nafarroaren etorkizuna. Terrorismoaren biktimen kontaketa' mintegian izan duen parte-hartzea dela eta. Mintegi hori San Pablo CEU Unibertsitate-Fundazioko Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko Behatokiak antolatu du, eta gaur-bihar artean egingo da Madrilén.

Lehendakariak mintegiaren hasierako hitzaldia eman du. 'Historia errekuperatzeko erronka: Nafarroan 40 urtetako presio terroristak utzitako ondorioak bere agerraldian, Barcinak "Nafarroaren ahotsa" "amaitu gabeko drama" batean helarazi nahi izan du, non Foru Komunitatea "negozia daitekeen objektu bat baino gehiago bezala tratatu den terrorismoaren ziztada handienak jasan dituen protagonistetako bat baino". Behatokiaren zuzendari Cayetano Gonzálezek aurkeztu du hitzaldia, eta bertan izan da ere, San Pablo CEU Unibertsitate-Fundazioko



Yolanda Barcinak terrorismoaren biktimei buruzko hasierako hitzaldia eman du gaur Madrilén.

lehendakari Carlos Romero.

Lehen konpromisoari dagokionez, Yolanda Barcinak onartu du "ETAk eta haren gaizkideek Nafarroan sortu duten indarkeria fisiko edo psikiko kasu guztiak batzea ez da lan erraza izango", beldurra eragotzi baitu haiek salatuak izatea edo argitara ateratzea.

Lehenik eta behin, 1977tik Nafarroan hildako 42 pertsonak aipatu ditu, eta gogora ekarri du oraindik ere 14 hilketak argitzeke daudela. Kopuru guzti horretatik, 32 Estatuko Segurtasun Indarretako kideak ziren, hiru udaletako kargu politikoak. Biktimen artean daude ere: haur bat, zerbitzari bat, ingeniari bat, aseguru-agente bat, Leitzako herritar bat, Noain-Iruñeko aireportuko operazioburua eta egunkarien banatzaile bat, gogoratu du.

Horri buruz, Lehendakariak azpimarratu du ezin dela "42 pertsona horietako inoren memoria inoiz ahazten utzi", eta ezin dela ere "haien memoria beren borroaren maila berean jartzen utzi".

Lehendakariak gaineratu du, ETAREN beldurraren arrastoa ez dela mugatu Nafarroan "konpondu ezin den 42 heriotza tragiko horietara". Hala, gogoan izan ditu, "zauritutako hainbeste pertsona, beren ondasun materialak suntsitzearen ondorioz kaltetutako pertsona guztiak, xantaia jasandako ehunka enpresario, mehatxatutako, erasotako eta umiliatutako kargu publikoak, beren udalerrri edo auzoak utzi dituzten milaka pertsonak, edo etxean geratu nahi izan duten guztiak erabaki horrek beren eskubideei eta askatasunei uko egitea ekarri badie ere".

Alde horretatik, Lehendakariak bere laguntza irmoa erakutsi die "egiten diren ekimen guztiei beldurratik ihes egin behar izan duten pertsonak beren etxetara buelta daitezen, edo edozein kasutan beren udalerrri eta jatorrizko komunitateetan botoa ematen erraztea".

### Tomás Caballeroren hitzak

Lehendakariak adierazi du "ETAk eta Ezker Abertzaleak azken urteotan Nafarroa eta EAEko zenbait zonaldeetan ezarritako izuak ondorio politiko eta sozialak izan dituela".

Horri dagokionez, ETAk hil zuen UPNko zinegotzi Tomás Caballerok Iruñeko Udalean Herri Batasuneko zinegotziei esandako hitzak aipatu ditu. Gogora ekarri du, Caballerok zioela "terroristen helburua beti etsai politikoa izutzea, kanporatzea edo desagerraraztea izan dela beti, sarraski ideologikoaren patro bati jarraiki, eta kasu batzuetan genozidio politikoko zantzuak izan dituen, XX. mendeko Europako historiaren erregimen txarrenen parekoak".

Adierazpen horien ondoren, Lehendakariak amaitu du esanez ETAREN indarkeriaren amaierako egoera berriaren aurrean "ez dela kontua mendekua eta errebantxa aldarrikatzea, eta are gutxiago makilak gurpiletan jartzea Batasuna, Bildu edo Amaiurren inguruetik etengabe kritikatu izan gaituzten bezala", baizik eta "alderantziz".

"ETAREN eta Ezker Abertzaleko jarraitzaileei, duela gutxi arte isilik zeudenak edo xanpainarekin topa egiten zutenak hilketak egiten zirenean, gauza bat bakarrik esan diezaiekegu: ongi-etorriak demokraziara. Nahiago nuke betirako hemen geratuko bazinete", gonbitea luzatu die.

Lehendakariak bere nahia agertu du "guztion artean gizarte anitz, aske, demokratiko bat eraiki ahal dezagun, non gorrotoak lekurik izango ez duen. Baina hori bai, inoiz ez memoriarik gabeko gizarte edo bidegabekeria oinarritutakoa edo biktimak borroarekin parekatzeko duintasun ezan", ohartarazi du.

Amaitzeko, Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak Ezker Abertzaleari eskatu dio aitortu eta ordain dezala "sortu duen giza kalte, kalte sozial eta politiko handia". "ETA ezin da ohore guztiekin desagertu. Ez gara konformatzen hiltzeari uztearekin. Baldintza berdinetan jokatzea aldarrikatzen dugu", azaldu du.



Mintegia Madrilgo San Pablo CEU Unibertsitateko Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko Behatokiak antolatu du.